



Ikasgaiaren programa

# TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZAK I



IBAIZABAL IKASTOLA

2024-25

1BTX

## 0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

Dokumentu honetan Teknologia eta Ingenieritza I ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:

1. Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren **HELBURUAK**.
2. Ikasturtean zehar landuko diren **EDUKIAK**, eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.
3. Ikasgaia lantzeko erabiliko den **METODOLOGIA**; hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua.
4. Ikaslearen lana eta jarrera nola **EBALUATUKO** den; hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.
5. Ikaslearen nota eraikitzeko **KALIFIKAZIO SISTEMA**; hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren nota nola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).

Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikaslearen **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.

Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota ona eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzu.

Garrantzitsua da kontuan hartzea emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina, era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea, kritikotasunez eta autonomiaz jokatzera**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.

Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak** dokumentu honetan aurkituko dituzu.

## 1. IKASGAIAREN HELBURUAK

Ondorengoak dira ikasgaiko helburuak:

**H1.** Prozesu, sistema eta produktu teknologikoen ezaugarriak aztertu eta ulertzea, ikerketa-proiektu autonomoak ikuspegi tekniko, sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoekin burutuz, teknologiaren erabilera arduratsua eta iraunkorra ebaluatzeko. (AK1, AK6)

**H2.** Diziplina zientifiko ezberdinetako jakintzak integratu eta aplikatzea, prozedurak zorrotzasunez burutu eta adieraziz, ingenieritzaren esparruetako beharrak kalkulatzeko, problemak ebazteko edo haiei erantzuteko. (AK4, AK6)

**H3.** Arazo-egoerei erantzuteko produktu eta sistema teknologiko berriak proposatu edo egungoak hobetzea, akatsak ikaste-prozesuaren parte gisa ulertuz eta ziurgabetasun egoerei aurre eginez, ezagutza berriak sortu zein trebetasun teknikoak hobetzeko. (AK1, AK2, AK7)

**H4.** Ideia teknologikoak komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorrotzasun egokia euskaraz eta euskaratik erabiliz, pentsamendu teknologikoa propio, kritiko eta argudiatua eraikitzeo. (AK7)

**H5.** Tresna digital egokien aukerak baliatzea, egoera bakoitzaren beharretara konfiguratzu eta diziplinarteko ezagutzak aplikatuz, ataza ezberdinak ebazteko eta emaitzak modu optimoan aurkezteko. (AK1, AK3, AK5)

**H6.** Helburu komunak lortzeko ardura indibidualak hartzea, norbere emozioak zein besteenak identifikatu eta kudeatzu eta aniztasunaren aldeko apustua eginez, erronka teknologikoei kooperatiboki lan eginez erantzuteko. (AK8, AK9)

## 2. IKASGAIAREN EDUKIAK

UD1 > Teknologiaren prozesua eta produktua

UD2 > Erabilera teknikoko materialak

UD3 > Teknologiarako oinarrizko magnitudeak

UD4 > Energia

UD5 > Energia baliabideak

UD6 > Makinak eta sistemak

UD7 > Ekoizpen prozedura

Ikasgaiko edukien ikasturteko gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

	UNITATE DIDAKTIKOA						
	1	2	3	4	5	6	7
1. HIRUHILEKOA	■	■	■				
2. HIRUHILEKOA				■	■		
3. HIRUHILEKOA						■	■

### 3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

#### INTEGRAZIO JARDUERA

Talde kooperatiboetan gauzatutako ariketa teoriko-praktikoak izango dira, denboran nahikotxo luzatuko direnak. Integrazio jarduera bat izango da hiruhileko, eta ikasle taldeek aurkeztutako egoera ezberdinei aurre egin beharko diete, unean uneko baldintzei erantzunez, eta prozesu teknologiko oso bat burutuz

#### GELAKO ZEREGINAK

Gelan banakako zein taldekako ariketa txikiak burutuko dira, batzuetan teorikoak eta beste batzuetan praktikoak. Zeregin hauek forma eta ezaugarri desberdinak izan ditzakete (informazio bilaketa lanak, iritzi kritikoaren gauzatzeak, debateak..)

#### PROBLEMEN EBAZPENAK

Teknologiaren baitako alor desberdinetako problemen ebazpen ariketak burutuko dira bakarka zein taldean gelako saioetan, azterketen bitartez ebaluatuko direnak.

#### 4. EBALUAZIOA

Ondorengo irizpideen bitartez ebaluatuko dira lanketa hauek:

##### AZTERKETAK

- Ariketen planteamendu teoriko egokia egin eta era ulergarrian adieraztea, irudi edo eskemenen bitartez.
- Kalkuluak zuzen burutzea, datu egokiak aukeratu eta erabiliz zein eragiketa matematiko zuzenak eginez.
- Kalkuluen adierazpen egokia egitea, formulak, magnitudeak, unitateak, prozedurak eta ondorioak argi adieraziz.
- Euskarazko ortografia eta gramatika zuzena erabiltzea.
- Ariketen ebazpen osoa era txukunean adieraztea, egitura eta idazkera gabiarekin.

##### GELAKO ZEREGINAK eta INTEGRAZIO JARDUERAK

- Ariketaren edukiak barneratu izana.
- Egoerari aurre egitean koherentzia, pertinentzia eta edukien erabilera egokia.
- Prozesua

Zeregin bakoitzaren hasieran ebaluazio irizpide zehatzak jakinaraziko dira.

##### GELAKO JARDUNA (Jarrera)

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

- Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
- Parte hartzea
  - Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
  - Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Teknologiako ikasgaiari Teknologiako apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
  - Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.

- Elkarlana eta elkarbizitza
  - Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
  - Ingurukoak laguntzea.
- Autonomia
  - Asistentzia: Ikasgaiari justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
  - Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
  - Puntualtasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
  - Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
  - Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
- Hezkidetza: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

## 5. KALIFIKAZIO-SISTEMA

### HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko guztietan ikaslearen nota kalkulatzeko sistema hurrengoa izango da:

EBALUAZIO BAKOITZEKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA (%)
Gelako Zereginak	15
Integrazio Jarduera	30
Azterketa	45
Gelako jarduna	10

Hiruhileko bakoitzeko ebaluazioa gainditzeko ondorengo baldintza GUZTIAK bete beharko dira:

1. BALDINTZA: Atal guztietan gutxienez 4,5-era iristea beharrezkoa izango da atal desberdinen arteko batz bestekoa egiteko.

Baldintza hau bete ezean, ikasgaia ez dago gaindituta eta berreskurapena egin beharko da, gainditu gabeko (5etik behera) atal guztiena.

- BALDINTZA: Gelako zereginen (%15) eta azterketaren (%35) artean, gutxienez 2,5 puntu lortu beharko dira nota globaletik, edo beste era batera esanda, bi atal hauei dagokien %50-eko zatia (%15+%35) gainditu egin behar da.

Baldintza hau bete ezean, ikasgaia ez dago gaindituta eta berreskurapena egin beharko da, bi atal hauen artean gainditu gabekoarekin (5etik behera).

- BALDINTZA: Aurreko baldintzak bete arren, arloko konpetentziak gainditzea beharrezkoa izango da, nota globaletik gutxienez 4.5 puntu aterata.

Baldintza hau bete ezean, gainditu gabeko atalak (5etik behera) berreskuratu beharko dira.

Hiruhileko ebaluazioa gainditzeko ez duen ikasleak berau berreskuratzeko aukera izango du:

> 1. eta 2. hiruhilekoak berauen berreskurapen sasoian.

> 3. ebaluazioa ohiko deialdian

#### OHIKO DEIALDIA

3. hiruhilekoa berreskuratzeko aukeraz gain, ikasturtean zeharreko berreskurapenetan gainditu gabeko hiruhilekoak ohiko deialdian gainditzeko aukera izango da.

#### EZOHIKO DEIALDIA

Ohiko deialdian gainditu gabeko hiruhilekoak ezohiko deialdian berreskuratu ahal izango ditu ikasleak.

#### IKASTURTE AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Behin hiruhileko guztiak gaindituta, ikasturteko nota orokorra honela osatuko da:

IKASTURTEKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA%
1. Hiruhilekoa	33,33
2. Hiruhilekoa	33,33
3. Hiruhilekoa	33,33
IKASGAIKO NOTA	100

## BERRESKURAPENAK

Hiruhilekoak atalka berreskuratzeke aukera egongo da. Berreskurapenak arratsalde egongo dira, ordu lektiboetatik kanpo. Tarte hauetan azterketa berreskuratu eta/edo suspenditutako gelako zereginak edo integrazio jardueraren atalak entregatzeko aukera egongo da. Gelako zeregin zein integrazio jardueren kasuan, klaseko lana, taldeko lana eta autonomia baloratzen diren heinean, lortu daitekeen nota maximoa 5ekoa izango da, gainditu gabeko atalak aurkeztuz gero.

## NOTA IGOERAK

Ikasturteko nota hobetzeko hainbat aukera egongo dira:

> 1. hiruhileko azterketan, nahi izanez gero, ariketa gehigarri bat egiteko aukera izango dute. Ariketa honen balioa puntu batekoa izango da eta ariketa hau eginez azterketako nota puntu bat igotzeko aukera izango dute.

> 2. hiruhileko azterketan, nahi izanez gero, ariketa gehigarri bat egiteko aukera izango dute. Ariketa honen balioa puntu batekoa izango da eta ariketa hau eginez azterketako nota puntu bat igotzeko aukera izango dute.

> 3. hiruhileko azterketan, nahi izanez gero, ariketa gehigarri bat egiteko aukera izango dute. Ariketa honen balioa puntu batekoa izango da eta ariketa hau eginez azterketako nota puntu bat igotzeko aukera izango dute.

## **HAZIAK> JARRERA PARTE-HARTZAILEA BULTZATZEKO SISTEMA**

Ikasleak bere ibilbide akademikoa indartzen joateko jarrera bultzatzeko sistema da haziena. Helburua da ikasleek urtean zehar ikastolatik bertatik antolatutako zein kanpoko ekintzetan parte hartzea bultzatzea, bere ikasketa prozesua aberasteko balio duten esperientziak biltzen joateko.

Hitzaldi, debate edo mahai inguruetara joanez, erakusketak bisitatuz, antzerki edo dantza emanaldietara agertuz, solasaldi zientifikoetan parte hartuz.... edo, oro har, ikaslearen irteera perfila aberastu dezaketen edozein hitzordu baliatzera bultzatzeko sistema da, beraz.



Horrez gain, jarrera parte hartzaile honek eragina izan dezake ikasturteko emaitzetan. Ikasturtean zehar, ekintza hauetan parte hartu izana erakutsiz gero, hainbat ikasgaitako notak hobetzen joan daiteke.

Horretarako ikasleak, txantiloiz/zeregin berezia bete eta entregatu beharko du:

- Ebaluazio bakoitzeko, gehienez 4 ekintza aurkeztu daitezke hainbat ikasgaitan banatuta.
- Gehienez ere, ikasgai bakoitzaren barruan 2 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.
- Gehienez ere, 10 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.

Hazien bitartez lortutako nota igoerak ebaluazio amaieran aplikatuko dira, ikaslearen ebaluazio horretako batezbesteko orokorra kalkulatu ondoren (eta beti ere, ebaluazioa gaindituta dagoenean).

Aurkeztutako ekintzen bitartez, ikasleak bere ikasturteko batezbesteko orokorra 1 punturaino hobetu ahal izango du, ikasgaiaren arabera, horretarako dagokion ebaluazioan behar besteko pisua hartuz.

Haziak aurkezteko txantiloia/zeregina Classroom-en eskuragarri egongo da.